

3.- AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

Atal honetan honako alderdi hauek jaso dira: Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) 2020-2023 epealdirako nazioarteko ekonomiari buruz egin dituen aurreikuspenak, Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioak datorren urterako prestatutako egoera makroekonomikoa, Eusko Jaurlaritzak egin dituen aurreikuspenak, eta azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak datorren ekitaldiko sarreraren aurreikuspena egiteko Gipuzkoako ekonomian kontuan hartu dituen aldagaiak.

3.1.- Nazioarteko Diru Funtza (NDF)

3.1.1. taula.- NDF: Nazioarteko ekonomiaren aurreikuspenak

Cuadro 3.1.1.- FMI: Previsiones económicas internacionales

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2020	2021	2022	2023
BPG (Bolumen %-aren Δ) / PIB (Δ % volumen)				
Mundu osoa / Total mundial	-3,1	6,1	3,2	2,9
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	-4,5	5,2	2,5	1,4
Estatu Batuak / Estados Unidos	-3,4	5,7	2,3	1,0
Japonia / Japón	-4,5	1,7	1,7	1,7
Erresuma Batua / Reino Unido	-9,3	7,4	3,2	0,5
Eurogunea / Zona euro	-6,4	5,4	2,6	1,2
Garapen bidean dauden herrialdeak eta suspertzen ari diren merkatuak/Países en desarrollo y mercados emergentes	-2,0	6,8	3,6	3,9
KONTSUMO PREZIOAK / PRECIOS CONSUMO (Δ %)				
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	0,7	3,1	5,7	2,5
Garapen bidean dauden herrialdeak eta suspertzen ari diren merkatuak / Países en desarrollo y mercados emergentes	5,2	5,9	8,7	6,5
MUNDUKO MERKATARITZA (bolumen %-aren Δ)				
COMERCIO MUNDIAL (Δ % volumen)	-7,9	10,1	5,0	4,4

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (NDF).

Fuente: Fondo Monetario Internacional (FMI).

2021ko suspertze zalantziaren ostean bilakaera ilunagoa etorri da 2022an. Aurtengo bigarren hiruhilekoan, munduko produktua uzurtu egin zen, Txinaren eta Errusiaren desazelerazioa tarteko, eta Estatu Batuetako etxeetako gastuak, aldiz, ez zuen esperotakoa bete. Hainbat shock jasan ditu pandemiak dagoeneko ahuldutako munduko ekonomiak: aurreikusitakoa baino inflazio handiagoa mundu osoan –batez ere Estatu Batuetan eta Europako ekonomiarik

3.- PREVISIONES ECONÓMICAS

En este apartado se recogen las previsiones económicas internacionales para el periodo 2020-2023 realizadas por el Fondo Monetario Internacional, el escenario macroeconómico para el próximo año elaborado por el Ministerio español de Economía y Hacienda, las previsiones del Gobierno Vasco y las variables de la economía del Territorio Histórico que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha tenido en cuenta para la previsión de sus ingresos en el próximo ejercicio.

3.1.- FMI

La titubeante recuperación de 2021 ha venido seguida de una evolución cada vez más lúgubre en 2022, a causa de los riesgos que comenzaron a materializarse. Durante el segundo trimestre de este año, el producto mundial se contrajo, debido a la desaceleración de China y Rusia, mientras que el gasto de los hogares en Estados Unidos no alcanzó las expectativas. Varios shocks han sacudido una economía mundial ya debilitada por la pandemia: una inflación superior a lo

handienetan—, baldintza finantzarioak zorroztea ekarri duena; espero zena baino desazelerazio okerragoa Txinan COVID-19aren agerraldien eta konfinamenduen ondorioz eta Ukrainako gerraren eragin negatiboak.

Oinarritzko aurreikuspenaren arabera, hazkundera txikituko egingo da, iazko % 6,1etik %3,1era, % 0,4ko jaitsiera 2022ko apirilko munduko ekonomiaren perspektibekin alderatuta (WEO txostena). Urte hasieran hazkunde txikiagoa erregistratu zen, etxeek erosteko ahalmena galdu zuten eta moneta politika murriztaileagoa ezarri zen, eta, horren ondorioz, Estatu Batuetan beheranzko berrikuspena % 1,4koa izan zen. Txinan, konfinamenduek eta higiezinaren sektorearen krisia larritzeak beraiekin ekarri dute hazkunde beherantz berrikusi beharra, % 1,1 puntu, eta horrek ondorio handiak ekarri ditu munduan. Europan, halaber, beheratze nabarmenek islatu egiten dituzte Ukrainako gerraren ondorioak eta moneta politika zorrotzu izana. Munduko inflazioa gorantz berrikusi da, elikagaien eta energiaren prezioak eta eskaintzaren eta eskariaren arteko etengabeko desorekak tarteko; aurreikusi da aurten % 6,6koa izango dela ekonomia aurreratuetan, eta % 9,5koa hazten edo garatzen ari diren merkatuen ekonomietan, hau da, 0,9 eta 0,8 puntuko goranzko berrikuspenak dira, hurrenez hurren. 2023an, espero da desinflaziorako moneta politika sumatzen hastea, eta munduko produktuaren hazkundera % 2,9koa izatea soilik.

Perspektibetarako arrisku gehien-gehienek beheranzko joera islatzen dute. Ukrainako gerrak Europan Errusiako gasaren inportazioak geldiaraz ditzakete; inflazioa txikitzen zailagoa izan daiteke espero zena baino, dela lan merkatuen zurruntasuna handiagoa delako aurreikusitakoa baino, dela inflazio itxaropenak desainguratu egin direlako; munduko baldintza finantzarioak gogortzeak zorpetze handiegia ekar dezakete hazten eta garatzen ari diren merkatuen ekonomietan; COVID-19aren agerraldiek eta konfinamenduek eta higiezinaren sektoreko krisia okertzeak Txinaren hazkundera are gehiago

previsto en todo el mundo —sobre todo en Estados Unidos y las principales economías europeas— que ha provocado el endurecimiento de las condiciones financieras; una desaceleración peor de lo previsto en China, consecuencia de los brotes de la COVID-19 y los confinamientos, y las nuevas repercusiones negativas de la guerra en Ucrania.

Según el pronóstico de base, el crecimiento se reducirá de 6,1% del año pasado a 3,2% en 2022, un descenso de 0,4 puntos porcentuales con respecto a la edición de abril de 2022 de Perspectivas de la economía mundial (informe WEO). El crecimiento inferior registrado a principios del año, la pérdida de poder adquisitivo de los hogares y una política monetaria más restrictiva provocaron una revisión a la baja de 1,4 puntos porcentuales en Estados Unidos. En China, los nuevos confinamientos y el agravamiento de la crisis del sector inmobiliario han obligado a revisar a la baja el crecimiento en 1,1 puntos porcentuales, con importantes repercusiones a escala mundial. Por su parte, en Europa, las significativas rebajas son un reflejo de las repercusiones de la guerra en Ucrania y el endurecimiento de la política monetaria. La inflación mundial se ha revisado al alza debido a los precios de los alimentos y la energía y los persistentes desequilibrios entre la oferta y la demanda, y se prevé que este año se sitúe en 6,6% en las economías avanzadas y 9,5% en las economías de mercados emergentes y en desarrollo, es decir, revisiones al alza de 0,9 y 0,8 puntos porcentuales, respectivamente. En 2023, se espera que la política monetaria desinflacionaria comience a hacer mella y el crecimiento del producto mundial sea de tan solo 2,9%.

En su inmensa mayoría, los riesgos para las perspectivas apuntan a la baja. La guerra en Ucrania podría paralizar las importaciones de gas ruso en Europa; la inflación podría ser más difícil de reducir de lo que se esperaba, ya sea porque la rigidez de los mercados de trabajo es mayor de lo previsto, o porque se desancian las expectativas de inflación; el endurecimiento de las condiciones financieras mundiales podría causar sobreendeudamiento en economías de mercados emergentes y en desarrollo; los nuevos brotes de COVID-19 y confinamientos, así como un empeoramiento de la crisis en el



muga dezakete, eta zatikatze geopolitikoak oztopatu egin ditzake munduko merkataritza eta lankidetzak. Beste aukera bat da, arriskuak egia bihurtzen badira, inflazioa oraindik gehiago haztea eta munduko hazkundea % 2,6ra eta % 2,0ra murriztea 2022an eta 2023an, hurrenez hurren; horrek 1970tik erregistratutako emaitzen beheko % 10ean utziko luke hazkundea.

Prezioak handitzean mundu osoan bizitza maila murrizten ari denez, autoritate ekonomikoen lehentasun nagusia izan beharko litzateke inflazioa kontrolatzea. Moneta politika zorrozteak, dudarik gabe, kostu ekonomiko errealek izango ditu, baina hori atzeratzeak ez du kostuak handitzea besterik ekarriko. Zerga laguntza fokalizatuak lagundu egin dezake pertsona zaurgarrienengan duen eragina arintzen, baina pandemiaren ondorioz gobernuak dituzten aurrekontu tentsioak eta politika makroekonomikoaren joera orokorra inflazioaren kontrakoa izateko beharra aintzat hartuta, politika horiek konpentsatu egin beharko lirateke zergak igoz edo gastu publikoa murriztuz. Moneta austeritate handiagoak eragin egingo dio ere finantza egonkortasunari, eta ezinbestekoa izango da era arrazionalagoan erabiltzea makroprudentziako tresnak, eta are beharrezkoago bihurtuko du zergaren ebazpen esparruak eraldatzea. Energiaren eta elikagaien prezioen eragin zehatzei aurre egiteko politikak eragina gogorren jasan dutenetara bideratu behar dira, prezioak distorsionatu gabe. Gainera, pandemiak jarraitu egiten duenez, txertatzea handitu egin behar da, aldagai berrien kontrako babesa emateko. Azkenik, klima aldaketa arintzeko, alderdi askoko premiazko neurriak behar dira, isurpenak mugatzeko eta trantsizio berdea azkartzeko inbertsioak handitzeko.

3.2.- ESPAINIAKO ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA 2021-2023 EPEALDIRAKO

Aurreikuspenak lausotu egin ditu munduko ekonomiak bizi duen nahasmen hirukoitzak: tentsio geopolitikoak eta, zehazkiago, Ukrainako gerra; krisi energetikoa, eta inflazioa kroniko egiteko arriskuak dakarren moneta politikaren noranzko aldaketa. Horrek

sector inmobiliario, podrían inhibir aún más el crecimiento en China, y la fragmentación geopolítica podría obstaculizar el comercio y la cooperación mundiales. Un posible escenario alternativo, en el cual los riesgos se materialicen, la inflación aumente todavía más y el crecimiento mundial se reduzca hasta 2,6% y 2,0% en 2022 y 2023, respectivamente, situaría el crecimiento en el 10% inferior de los resultados registrados desde 1970.

Mientras el aumento de precios sigue reduciendo el nivel de vida en todo el mundo, la máxima prioridad de las autoridades económicas debería ser el control de la inflación. El endurecimiento de la política monetaria tendrá sin duda costos económicos reales, pero retrasarlo no hará sino exacerbarlos. Recurrir a un apoyo fiscal focalizado puede ayudar a amortiguar el impacto sobre las personas más vulnerables, pero ante las tensiones presupuestarias que los gobiernos enfrentan por la pandemia y la necesidad de que la orientación general de la política macroeconómica sea des-inflacionaria, tales políticas deberán compensarse con una subida de impuestos o una reducción del gasto público. La mayor austeridad monetaria también afectará la estabilidad financiera, obligando a usar de forma racional las herramientas macro-prudenciales y haciendo aún más necesaria la reforma de los marcos de resolución de la deuda. Las políticas dirigidas a hacer frente a repercusiones concretas de los precios de la energía y los alimentos deben centrarse en quienes se han visto más afectados, sin distorsionar los precios. Además, en una pandemia que se mantiene, las tasas de vacunación deben subir para ofrecer protección ante nuevas variantes. Por último, la mitigación del cambio climático sigue requiriendo medidas multilaterales urgentes para limitar las emisiones y aumentar las inversiones dirigidas a acelerar la transición verde.

3.2.- CUADRO MACROECONÓMICO DEL ESTADO ESPAÑOL PARA EL PERIODO 2021-2023

Las perspectivas están empañadas por la triple perturbación que atraviesa la economía mundial: las tensiones geopolíticas y más concretamente la guerra en Ucrania, la crisis energética y el cambio de rumbo de la política monetaria motivado por el riesgo de

guztiak hazkunde aurreikuspenak txikitzea dakar, eta prezioek gora egitea.

Datozen hiletarako, espero da oraindik ere turismoaren erreboteak, ondasun eta zerbitzu ez turistikoen esportazioak eta lan merkatuaren gorakadak jarduerari eusten jarraitzea. Hala eta guztiz ere, faktore horiek indarra galduko dute turismo sasoia amaitzean, eta nahasmendu geopolitikoek, energetikoek eta monetakoek indarra hartuko dute, eta barne eskaria txikituko.

Dena den, oraindik ere BPGa % 4,2 haziko dela aurreikusi da, aurreko aurreikuspenak aldatu gabe, atzeraldiko faktoreak konpentsatu egingo baitituzte hazkundekoek. Beraz, barne eskariaren ekarpena 2,1 puntukoa izango da soilik, hau da, martxoko aurreikuspenean baino 1,7 puntu gutxiago. Murrizketa horrek nagusiki islatzen du kontsumitzaileen erosteko gaitasunaren galera, inflazioaren ondoriozkoa: etxeetako errenta eskuragarria % 6 handituko da prezio egungo prezioekin (soldaten gorakadari eta enplegua handitzeari esker), hau da, % 2,6ko jaitsiera, KPIa kendu ondoren. Etxeek aurrezkia erabiliko dute haien gastua finantzatzeko, eta horrek aukera emango du kontsumo pribatua apur bat handitzeko –aurreikuspen hori jaisten ari da martxokoarekin alderatuta–. Enpresa ez energetikoen marjinak ere txikitu egingo dira, energia kostuek eta lehengai batzuenek gora egin ahala, eta horrek inbertsioa zailduko du. Inbertsioa oraindik ere hazi egingo da, Europako funtsek finantzatzeko Suspertze Plana egikaritzea azkartzeari esker.

Aitzitik, kanpoko sektorearen ekarpena gorantz berrikusi da, 2,1 puntura arte (martxoan baino 1,7 puntu gehiago), eta horrek islatu egiten du turismoagatikoko diru sarrerak berreskuratu egin direla, pandemiaren aurreko mailaraino, eta, hein txikiagoan, kanpoko ondasun eta zerbitzu ez turistikoen salmentak ere bai. Inportazioak eskariarekin batera haziko dira (pandemiaren aurreko hazkunde aldiko batez bestekoaren hurbileko malgutasunean oinarrituta), eta horrek esportazioena baino hazkunde txikiagoa dakar.

cronificación de la inflación. Todo ello confluye en un recorte de las previsiones de crecimiento y un alza de las de precios.

Para los próximos meses se espera todavía que el rebote del turismo, el dinamismo de las exportaciones de bienes y servicios no turísticos y la pujanza del mercado laboral seguirán sosteniendo la actividad. Sin embargo, estos factores perderán fuelle con el fin de la temporada turística, mientras que por el contrario las perturbaciones geopolíticas, energéticas y monetarias irán ganando peso, lastrando la demanda interna.

Con todo, se anticipa todavía un crecimiento del PIB del 4,2%, sin cambios en relación a las anteriores previsiones ya que los factores recesivos se compensarán con los expansivos. Así pues, la aportación de la demanda interna será solo de 2,1 puntos, es decir 1,7 puntos menos que en la previsión de marzo. Este recorte refleja principalmente la pérdida de capacidad de compra de los consumidores como consecuencia de la inflación: la renta disponible de los hogares se incrementará un 6% a precios corrientes (gracias al ligero repunte de los salarios unido al crecimiento del empleo), lo que implica un descenso del 2,6% una vez descontado el IPC. Los hogares tirarán del ahorro para financiar su gasto, algo que permitirá un leve crecimiento del consumo privado –una previsión en retroceso en relación a la de marzo. Las empresas no energéticas también se enfrentan a un estrechamiento de sus márgenes, como consecuencia de la escalada de costes energéticos y de otras materias primas, algo que pesa sobre la inversión. Esta todavía repuntará, gracias a la aceleración en la ejecución del Plan de recuperación financiado por los fondos europeos.

Por el contrario la aportación del sector exterior se ha revisado al alza, hasta 2,1 puntos (1,7 puntos más que en marzo), reflejando la recuperación de los ingresos por turismo hasta el nivel previos a la pandemia y, en menor medida, de las ventas de bienes y servicios no turísticos en el exterior. Las importaciones, por su parte crecerán en consonancia con la demanda (en base a una elasticidad próxima a la media del periodo expansivo pre-pandemia), lo que implica un menor incremento que el de las exportaciones.

Ekonomiak desazelerazio handia izango du 2023an, eta BPGaren hazkunde aurreikusia % 2koa da, aurreko aurreikuspenean baino 1,3 puntu gutxiago. Murrizketa horren jatorria dira turismoaren errebotea eta Errusiako gas hornidurari lotutako arriskuen ondorioz EBko aurreikuspen ekonomikoak hozteak esportazioetan izan duen eragina (guztiz ez eten arren, Euroguneak hazkunde puntu bat galduko luke, 2022arekin alderatuta). Kanpoko sektorearen ekarpena hutsala izango litzateke, beraz, ekitaldi honetarako aurreikusitako emaitza onaren ondorioz.

Horrez gain, barne eskaria apur bat handituko da urtean zehar, baina ez da helduko kanpoko sektorearen desazelerazioa konpentsatzera. Etxeetako kontsumoak berreskuratu egingo luke aurten galdutakoaren apur bat, bi hipotesirekin: soldatak apur bat berreskuratuko direla, eta aurrezki tasa gehiago jaitsiko dela, historiako batez bestekoa baino maila apur bat txikiagoetara. Horiek horrela, 2023aren amaieran, kontsumo pribatuaren gastu erreala oraindik ere pandemiaren aurreko mailak baino % 3 beherago egongo litzateke. Inbertsioa moteldu egingo litzateke, zailtza giroa eta interes tasen iguera direla medio. Hala ere, hazkunde faktore bat izaten jarraituko du, Europako funtsei esker.

Inflazioak baldintzatuko du, oraindik ere, koiunturaren joera. Hipotesia izanik energiaren prezioek gorantz jarraituko dutela udaberrira arte, egonkortu aurretik, etorkizunen merkatuei jarraituz, bereziki gasaren kasuan, kontsumoaren deflaktorea aurten % 8,8 eta % 5 haziko da. Aurreikuspen horietan Gobernuaren inflazioaren kontrako azken plana sartuta dago. BPGaren deflaktorea, barne prezioak hoberen islatzen dituen aldagaia, tasa nabarmen txikiagoan haziko da, % 4,7tik % 3,8ra, hurrenez hurren. Kontsumoko prezioen eta BPGaren deflaktorearen arteko arrakala 70eko hamarkadan hasitako erregistro historikoko handiena da, eta horrek erakusten du zeinen ezohikoa den kostu inportatuen shocka eta Espainiako ekonomia shock energetikoaren eta horniduren shockaren ondorioz jasaten ari den erosteko ahalmenaren galera.

Kostu inportatuek gora egiten duten arren, kanpoko balantzak oraindik ere

La economía registrará una fuerte desaceleración en 2023, con un crecimiento previsto del PIB del 2%, 1,3 puntos menos que en la anterior previsión. Este recorte procede del fin del rebote del turismo y del impacto sobre las exportaciones del enfriamiento de las perspectivas económicas en la UE como consecuencia de los riesgos asociados al suministro de gas ruso (incluso sin cese total, la eurozona perdería un punto de crecimiento en relación a 2022). La aportación del sector externo pasaría por tanto a ser nula, tras el buen resultado previsto para el presente ejercicio.

Por otra parte, la demanda interna registrará un leve repunte a lo largo del año, sin compensar la desaceleración del sector externo. El consumo de los hogares recuperaría una pequeña parte del terreno perdido este año, bajo la doble hipótesis de una leve recuperación salarial y de un descenso adicional de la tasa de ahorro hasta niveles ligeramente inferiores a la media histórica. Con todo, a finales de 2023 el gasto en consumo privado en términos reales todavía se situaría un 3% por debajo de los niveles previos a la pandemia. La inversión perdería ritmo por el clima de incertidumbre y la elevación de los tipos de interés. Pese a ello, se mantendrá como un factor expansivo gracias a los fondos europeos.

La inflación seguirá marcando la pauta de la coyuntura. Partiendo de la hipótesis de unos precios energéticos al alza hasta la próxima primavera antes de estabilizarse, en línea con los mercados de futuros, particularmente en el caso del gas, el deflactor del consumo crecerá este año un 8,8% y un 5% el que viene. Estas previsiones incorporan el último plan anti-inflación del Gobierno. Por su parte el deflactor del PIB, la variable que mejor refleja los precios internos, se incrementará a una tasa significativamente menor, del 4,7% y 3,8% respectivamente. La brecha entre precios al consumo y deflactor del PIB es la más elevada de la serie histórica que arranca en los años 70, algo que refleja la excepcionalidad del shock de costes importados y la pérdida de poder adquisitivo que soporta la economía española como consecuencia del shock energético y de suministros.

Pese al alza de los costes importados, la balanza externa seguirá arrojando un

soberakina emango du aurreikusitako aldi osoan. Nazioaren finantzazio gaitasunaren saldo positiboa azaltzen du turismoaren diru sarrerak handitu izanak eta horrek hein batean konpentsatzeak energia faktura garestitu izana, baita Next Generation proiektuaren esparruko Europako transferentziek ere.

Lan merkatuaren dinamismoa mantendu egingo da, baina gero eta erritmo txikiagoan, ekonomiaren desazelerazio handiari jarraituz. Oraindik ere 600.000 lanpostu sortuko dira 2023 amaierara arte, eta horrek langabezia tasa txikitu egingo du, % 12tik behera egon arte.

Defizit publikoa aurten txikiagotu egingo da, egonkortzaile automatikoen eta inflazioaren ondorioz. Dena den, 2023an apenas egingo den aurrera ekonomia hoztearen ondoriozko desorekei eusten, funtzionarioen soldatak birbalorizatzen eta aurrekontu partida batzuk indiziatzen, esaterako, pentsioak. Zuloa BPGaren % 4,5ekoa izango da, gutxi gorabehera, 2023an, egiturazko mailatik gertu, eta zorra % 112koa, gutxi gorabehera.

Moneta politikaren jarduteko marjina ere estutu egingo da, EBZ interes tipoak igotzera behartzen duen inflazioak irautearen ondorioz. Aldaketa horrek, ordea, mailakakoa izan beharko du, ekonomiaren desazelerazioa ez gogortzeko, eta su etenak jarri beharko dira zatikatze finantzarioaren aurka (proiektzio hauek egitean oraindik definitu gabeko mekanismoa). Dena den, aurreikuspenek jasotzen dute gordailuen erraztasuna % 1,5 igoko dela aurreikuspen aldiaren amaieran. Hori bat etorriko litzateke Euriborra atalase horren gainean egotearekin, eta 10 urterako bonu publikoen % 3tik gertuko errentagarritasunarekin.

Aurreikuspenetan zalanza maila handia da baldintza gako jakin batzuen inguruan, adibidez, Ukrainako gerraren edo energiaren prezioen bilakaeraren inguruan. Gatazka itun bidez amaitzeak nabarmen hobetuko litzuke inflazioaren aurreikuspenak, eta eragileei konfiantza emango lieke. Egoera egokia izango litzateke inbertsioa erabiltzeko eta pandemian zuhurtziagatik metatutako aurrezki matalaza kontsumitzeko. Horrek guztiak aukera emango luke ekonomia berriz

excedente durante todo el periodo de previsión. El saldo positivo de la capacidad de financiación de la nación se explica por el incremento de los ingresos en concepto de turismo, contrarrestando parcialmente el encarecimiento de la factura energética, y por las transferencias europeas en el marco del Next Generation.

El dinamismo del mercado laboral se mantendrá, si bien a un ritmo cada vez menor, en consonancia con la fuerte desaceleración de la economía. Todavía se crearán cerca de 600.000 puestos de trabajo hasta finales de 2023, generando una reducción de la tasa de paro hasta menos del 12%.

El déficit público descenderá este año por el juego de los estabilizadores automáticos y de la inflación. Sin embargo, en 2023 apenas se avanzará en la contención de los desequilibrios por el enfriamiento de la economía, la revalorización de los sueldos de los funcionarios y la indiciación de algunas partidas presupuestarias como las pensiones. El agujero rondará el 4,5% del PIB en 2023, un valor cercano a su nivel estructural, y la deuda el 112%.

El margen de actuación de la política monetaria también se estrechará como consecuencia de la persistencia de la inflación que aboca al BCE a incrementos de tipos de interés. Este giro, sin embargo, deberá ser gradual para no intensificar la desaceleración de la economía, y acompañarse de cortafuegos contra la fragmentación financiera (un mecanismo todavía sin definir en el momento de realizar estas proyecciones). Con todo, las previsiones incorporan un incremento de la facilidad de depósitos del hasta el 1,5% a finales del periodo de previsión. Esto sería consistente con un Euribor por encima de ese umbral y una rentabilidad del bono público a 10 años cercana al 3%.

Las previsiones están sujetas a un elevado grado de incertidumbre en torno a determinantes clave como la duración de la guerra en Ucrania o la evolución de los precios energéticos. El fin pactado de la contienda mejoraría sustancialmente las perspectivas de inflación y aportaría confianza a los agentes. Ese sería un contexto propicio a la utilización para la inversión y el consumo del colchón de ahorro acumulado durante la pandemia por razones precautorias. Todo ello permitiría re-

ere dinamizatzeko. Alderantziz, gerra luzatuz edo beste herrialde batzuetara zabalduz gero, ezinbestean estanflazioa sortuko litzateke.

Beste arrisku garrantzitsu bat da moneta politikaren bilakaerarena. Aipatu denez, aurreikuspen horietan sartuta daude interes tasen igoera apalak, merkatuen aurreikuspenekin bat datozenak. Horrek etxeentzako eta enpresentzako karga finantzarioak handitzea ekarriko luke, baina maila onargarrietan, krisi finantzarioarekin alderatuta. Horren arrazoiak dira hazkunde ekonomikoaren erresilientzia, azken urteetan sektore pribatuan izandako zorra kentzeko prozesua eta pandemia egon arren atzera egin ez izana, eta duela hamarkada bat bankuek zituzten balantzeekin alderatuta egungoak egoera saneatuagoan egotea.

Dena den, sektore publikoaren kasuan, aurreikusi den moduan moneta politika zorrozteak eragin handiagoa izango da, desoreken abiapuntua kontuan hartuta. Nolanahi ere, hori oraindik posizio jasangarri bat izango litzateke, hazkunde ekonomikoaren bidea mantenduz gero eta defizitak mailaka zuzentzeko bide sinetsgarri bati ekinez gero. Zalantzarik gabe, EBZk zatikatzearen aurkako mekanismo eraginkor bat sortzeak ere lagunduko luke arrisku finantzarioei eusten.

dinamizar la economía. A la inversa, la perpetuación del conflicto bélico o su extensión a otros países llevaría inevitablemente a la estanflación.

Otro importante riesgo atañe a la evolución de la política monetaria. Como ya se ha comentado, estas previsiones contemplan subidas moderadas de tipos de interés, en línea con la anticipación de los mercados. El resultado sería una elevación de las cargas financieras para los hogares y las empresas, pero hasta niveles asumibles en comparación con la crisis financiera. Ello se debe a la resiliencia del crecimiento económico, al proceso de desendeudamiento del sector privado registrado estos últimos años y que no se ha desmentido pese a la pandemia, y a la posición relativamente saneada de los balances bancarios en comparación con hace una década.

Sin embargo, en el caso del sector público, el endurecimiento previsto de la política monetaria tendrá un impacto más pronunciado, habida cuenta del nivel de partida de los desequilibrios. No obstante, esta sería todavía una posición sostenible, a condición de mantener la senda de crecimiento económico y de poner en marcha una senda creíble de corrección gradual de los déficits. Sin duda, la creación por parte del BCE de un mecanismo eficaz anti-fragmentación también ayudaría a contener los riesgos financieros.

3.2.1. taula.- Estatuko proiektzio makroekonomikoak
Cuadro 3.2.1.- Proyecciones Macroeconómicas del Estado

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2021	2022	2023
BPG ETA GEHITUAK (BENETAKO %-ren Δ) / PIB Y AGREGADOS (Δ % REAL)			
Familien amaierako kontsumoaren gastua / Gasto en consumo final hogares (1)	4,6	3,0	2,5
Amaierako kontsumo publikoaren gastua / Gasto en consumo final público	3,1	0,9	2,2
Kapital eraketa gordina / Formación Bruta Capital	4,3	9,3	6,6
Barne eskaria/ Demanda interna	4,7	3,7	3,3
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa / Exportación de Bienes y Servicios	14,7	10,2	4,9
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa / Importación de Bienes y Servicios	13,9	9,1	6,5
Kanpoko saldoa/ Saldo exterior (2)	0,5	0,5	-0,7
Barne produktu gordina / Producto Interior Bruto	5,1	4,3	2,7
PREZIOAK ETA KOSTUAK (Δ %) / PRECIOS Y COSTES (Δ %)			
BPGaren deflatoarea / Deflactor del PIB	2,2	4,0	3,2
LAN MERKATUA / MERCADO DE TRABAJO			
Enplegua, guztira (bariaz. %tan) / Empleo Total (variac. en %)	6,6	3,7	0,8
Langabezia (biztanleria aktiboaren %) / Paro (% de la población activa)	14,8	12,8	12,0

(1) Etxeen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko erakundeak sartzen dira / Incluye las instituciones sin fines de lucro al servicio de los hogares

(2) BPGaren hazkunderako laguntza / Contribución al crecimiento del PIB.

3.3.- EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak euskal ekonomiarako aurkeztutako eszenario makroekonomikoak hainbat egoera hartzen ditu oinarri gisa: munduko ekonomiaren bilakaera, euroak dolarren aldean duen kanbio tasa, deflaktoreak, eta Europako Banku Zentralak aurreikuspenetan aztertutako epealdirako ezartzen dituen interes tasak.

3.3.- GOBIERNO VASCO

El escenario macroeconómico de la economía vasca presentado por la Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco se basa en unos supuestos relativos a la evolución económica mundial, al tipo de cambio del euro frente al dólar, a los deflatores y a los tipos de interés que establezca el Banco Central Europeo para el horizonte temporal contemplado en las previsiones.

3.3.1. taula.- EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK
Cuadro 3.3.1.- PREVISIONES PARA LA ECONOMÍA VASCA

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2021	2022	2023
BPG / PIB	5,6	4,3	2,1
Azken kontsumoa / Consumo final	4,8	1,8	1,5
Kontsumo pribatua / Consumo privado	5,3	2,7	1,4
Kontsumo publikoa / Consumo público	3,0	-1,4	1,7
Kapital eraketa gordina / Formación bruta de capital	6,3	4,8	2,9
Barne eskariaren ekarpena / Aportación demanda interna	5,1	2,5	1,8
Kanpo saldoaren ekarpena / Aportación saldo exterior	0,2	1,8	0,3
BPGaren deflatorea / Deflactor PIB	2,3	4,2	3,0
Enplegua / Empleo	5,5	2,7	1,2
Langabezia tasa / Tasa de paro	10,0	8,8	8,3

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Fuente: Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco.

Nahiz eta orain 2022rako aurreikusi den hazkunde tasa aurreko txostenean aurkeztutako baina pixka bat baxuagoa izan (%4,3), haren osaera modu garrantzitsuan aldatu da, lehen hiru hilabeteetako kontu ekonomikoen xehetasunak ezagutu ondoren. Funtsean, egungo agertokian barne eskariaren bultzada txikiagoa eta kanpo saldoak hazkundeari ekarpen handiagoa egingo duela aurreikusten da. Kanpoko merkataritzaren portaera ezusteko atsegina da, gaur egungo koiuntura ekonomikoak uzten diguna. Izan ere, oro har, esportazioek eta inportazioek antzeko hazkunde tasak izan dituzte, eta, beraz, BPGari egindako ekarpenak, zeinu positiboarekin edo negatiboarekin, oso txikiak izan dira. Hala eta guztiz ere, azken hiru hiru hilabeteetako ekarpen horiek positiboak eta tamaina handikoak izan dira. Zehatz-mehatz, lehen hiru hilabeteetako, EAEko ekonomiaren hazkundeari ia erdia kanpoko saldotik etorri zen. Horregatik, aurreikuspen horretan urteko batez besteko ekarpena 1,8 puntukoa izatea

A pesar de que el crecimiento previsto ahora para 2022 es un poco menor al que se presentó en el informe anterior (4,3%), su composición ha cambiado de forma muy importante, una vez que se han conocido los detalles de las cuentas económicas del primer trimestre. Básicamente, en el escenario actual se prevé un menor impulso de la demanda interna y una mayor aportación del saldo exterior al crecimiento. El comportamiento del comercio con el exterior es una sorpresa agradable que nos deja la coyuntura actual, puesto que, de forma general, las exportaciones y las importaciones han sido tener crecimientos similares, por lo que las aportaciones al PIB, en un sentido u otro, han sido ser muy reducidas. Sin embargo, en los tres últimos trimestres esas aportaciones han sido positivas y de gran entidad. En concreto, en el primer trimestre casi la mitad del crecimiento de la economía vasca provino del saldo exterior. Por eso, en esta previsión se espera que la aportación media del año sea de

espero da, martxoan -0,3 puntukoa aurreratu zen bitartean.

Barne eskariaren oraingo aurreikuspen apalagoa kontsumo pribatuaren bilakaeraren ondorioa da, uste zena baino gutxiago hedatzen baita atzeratutako eskaria eta pandemian zehar sortu zen aurrezpen handia kontuan hartuta. Hala ere, prezioen igoerak familien erosteko ahalmena murriztu du eta etorkizunari buruzko nolabaiteko ziurgabetasuna sortu du, eta horrek gastua geldiarazi du. Horrela, urteko batez bestekoan, kontsumo pribatua %2,7 haztea espero da, urtearen bigarren erdian tasak handiagoak izatea espero delako.

Ziurgabetasunak enpresei eta haien inbertsio erabakiei ere eragiten die. Hala eta guztiz ere, testuinguru berrira ondo egokitzen ari direla ematen du. Zentzu horretan, kanpoko eskari handiak eta mikrotxipak eta beste produktu batzuk gero eta modu erregularrago iristeak pentsarazten dute kapital eraketa gordinak erritmoa bizkortuko duela datoen hiruhilekoetan, urteko batez besteko balioa %4,8koa izan arte. Agertokian, espero da ekipamenduan eginiko inbertsioak egungo tonu altuari eutsiko diola eta gainerako inbertsioa bizkortuko dela eraikuntzako inbertsioari esker, Europako funtsek lagunduta.

Eskaintzaren ikuspegitik, 2022rako espero den dinamismoa nabarmena izango da hiru sektore nagusietan. Alde batetik, industriak urte osoan zehar lehen hiruhilekoan erakutsitako joerari eutsiko diola espero da, eta tasarik altuena hirugarren hiruhilekoan iritsiko da, hortik aurrera apaltzeko joera txikia hasiko bailitzateke. Bestetik, eraikuntza indartsu haziko da urtearen hurrengo hiruhilekoetan, Europako funtsen etorrerak eta azken hilabeteetan erregistratzen ari den etxebizitza eskariak bultzatuta. Era berean, zerbitzuak modu dinamikoan eboluzionatuko dira turismo zerbitzuen eskari handiagatik eta industriak eta eraikuntzak dituzten premiengatik. Lehen hiruhilekoan erregistratutako %6,0 mantenduko ez den arren, espero den urteko batez bestekoa (%4,7) 2021ekoa baino 0,3 puntu txikiagoa izango da bakarrik.

Enpleguari dagokionez, 2022rako aurreikuspenaren arabera, lanaldi osoko

1,8 puntos, frente a -0,3 puntos que se anticipan en marzo.

La previsión más contenida de la demanda interna es consecuencia de la evolución del consumo privado, menos expansiva de lo que se pensaba teniendo en cuenta la demanda postergada y el elevado ahorro que se generó durante la pandemia. Sin embargo, la elevación de los precios ha recortado el poder adquisitivo de las familias y ha creado cierto nivel de incertidumbre sobre el futuro, que ha frenado el gasto. Así, en media anual, ahora se espera que el consumo privado crezca un 2,7%, dado que en la segunda mitad del año las tasas serán más elevadas.

La incertidumbre también afecta a las empresas y a sus decisiones de inversión. Sin embargo, da la impresión de que se están adaptando bien al nuevo contexto. En ese sentido, la fuerte demanda del exterior y la llegada cada vez más regular de los microchips y otros productos hacen pensar que la formación bruta de capital acelerará su ritmo en los siguientes trimestres, hasta registrar un valor medio anual del 4,8%. En el escenario, se espera que la inversión en equipo mantenga el tono elevado actual y que el resto de la inversión se acelere gracias a la inversión en construcción, favorecida por los fondos europeos.

Desde el punto de vista de la oferta, el dinamismo esperado para 2022 es notable en los tres sectores principales. Por un lado, se espera que la industria mantenga el tirón mostrado en el primer trimestre durante todo el año, con un máximo que llegará en el tercer trimestre, a partir del cual se iniciaría una suave desaceleración. Por otro, la construcción crecerá con fuerza en el resto del año, impulsada por la llegada de fondos europeos y por la demanda de vivienda que se está registrando en los últimos meses. De igual manera, los servicios evolucionarán de manera dinámica por la fuerte demanda de servicios turísticos y por las propias necesidades que tienen la industria y la construcción. Aunque no se mantendrá el 6,0% registrado en el primer trimestre, la media anual esperada (4,7%) será tan solo 0,3 puntos inferior a la de 2021.

En materia de empleo, la previsión para 2022 es que el número de puestos de



lanpostu baliokideen kopurua %2,7 handituko da urteko batez bestekoan, hau da, aurreko urtean baino 26.000 lanpostu gehiago beharko dira. Aurreikuspen hori betez gero, pandemian galdutako enplegu guztia berreskuratuko zen, baina oraindik 24.500 lanpostu beharko ziren Atzeraldi Handiaren aurretik zeuden milioi bat lanpostuetara berriro itzultzeko. Lanpostu teorikoak kontuan hartu beharrean, analisia pertsona landunei buruzkoa bada, aurreikuspenak adierazten du %2,0ko igoera izango dela aurtengatik, eta horrek esan nahi du 19.000 pertsona gehiago izango direla lanean. Langabezia tasaren jaitsiera esanguratsua izango da eta %9tik jaitsiko da aurtengatik, urteko batez bestekoan.

Inflazioaren bilakaera da egungo agertoki makroekonomikoaren zailtasun nagusia. Prezioen igoera azkar motelduko balitz, duela hilabete batzuk aurreikusi zen bezala, epe ertainean hazkunde biziago bat planteatzeko aukera emango luke. Hala ere, gaur egungo informazioaren arabera, EBZk nahi duen bezala, %2ko prezio erritimotara itzultzeak uste baino denbora gehiago beharko du. Agertoki horretan, deflatorearen urteko batez bestekoa 4,2koa da, lehen hiruhilekoko (%4,6) baino lau hamarren txikiagoa. Horretarako, KPIa maitatzeko %8,3tik tasa baxuagoetara moteltzen joatea espero da. Izan ere, ereduak sustengatzen duten hipotesien artean, estatuko kontsumo pribatuaren deflatoea dago, % 5,0koa, eta esportazioen deflatoea, % 11,1ekoa.

Txosten honetan aurkezten den aurreikuspena garrantzitsuen beste hipotesi batzuen arabera, interes-tasek gora egingo dute aurtengo bigarren erdian, balio negatiboak utzi arte. EBZk dagoeneko iragarri du portaera hori eta uztailan zein irailean igoerak onartuko dituela iragarri du. Euroak dolarren aldean izango duen truke tasari dagokionez, hipotesia da ez dela 2021eko balio galerarekin jarraituko eta egungo kanbioak, hots, 1,12 dolar euro bakoitzeko, gorabehera txikiekin mantenduko dela urteko datoen hilekoetan ere. Azkenik, Espainiarako, euroaren eremurako eta ELGARako kontuan hartu diren aurreikuspenak bat datoze aurreko atalekin.

Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenak 2022rako hiru puntuko tartea daukan urkila baten erdialdean dago. Urkila

trabajo equivalentes a tiempo completo aumente un 2,7% en media anual, que se traduce en una necesidad de 26.000 puestos más que en el año anterior. De cumplirse, se habría recuperado todo el empleo perdido durante la pandemia, pero todavía harían falta otros 24.500 empleos para volver al millón de puestos de trabajo que se tenían antes de la Gran Recesión. Si en lugar de referirse a puestos de trabajo teóricos el análisis se hace sobre personas ocupadas, la previsión indica un incremento del 2,0% este año, que suponen un aumento del orden de las 19.000 personas más trabajando. El descenso de la tasa de paro será significativo y bajará del 9% este año, en media anual.

La evolución de la inflación es la principal incógnita del escenario macroeconómico actual. Una moderación rápida de la subida de los precios, como la que se preveía hace unos meses, daría opción a plantearse un horizonte a medio plazo más expansivo. Sin embargo, la información actual sugiere que volver a ritmos de precios del 2%, como busca el BCE, va a llevar más tiempo de lo previsto. En este escenario, la media anual del deflactor es del 4,2, tan solo cuatro décimas inferior a la del primer trimestre (4,6%). Para ello, se confía en que el IPC vaya moderando su ritmo desde el 8,3% de mayo a tasas más bajas. De hecho, entre las hipótesis que sustentan el modelo, se encuentran un deflactor del consumo privado en el estado del 5,0% y un deflactor de las exportaciones del 11,1%.

Otras hipótesis que nos llevan a la previsión que se presenta en este informe son que los tipos de interés empezarán a subir en la segunda mitad del año hasta dejar los valores negativos. Esto es algo que ya ha sido anunciado por el BCE, que anticipa subidas en julio y en septiembre. En cuanto al tipo de cambio del euro frente al dólar, la hipótesis es que no se va a continuar con la depreciación de 2021 y que el cambio actual, 1,12 dólares por euro, se mantendrá, con pequeñas oscilaciones, a lo largo del resto del año. Por último, las previsiones para España, la zona del euro y la OCDE que se tienen en cuenta están en línea con las mencionadas en los apartados anteriores.

Las previsiones de la Dirección de Economía para 2022 se encuentran en la zona central de un abanico que cubre una horquilla



horren mutur batean, BBVA bankuak espero duen %3,3 dago eta betean Laboral Kutxak iragarri zuen %6,3. Zabalera hori, neurri handi batean, aurreikuspen bakoitza egin zen dataren arabera azaltzen da, eta denboran urrunago daudenek tasa handiagoak aurreikusi zuten. Confekaskek eta Laboral Kutxak 2021eko abenduan egin zituztenak alde batera uzten badira, gaur eguneko testuingurutik oso urrun daudelako, BBVAren aurreikuspena nabarmentzen da. Beste aldetik, Cerepredek eta Hispalink zenbatetsi duten hazkunde erritmoa EAEko ekonomiarentzat ez da Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenetik gehiegi aldentzen.

3.4.- GIPUZKOAKO ALDUNDIA

Gipuzkoako ekonomiari dagokionez, 2023an inguruko ekonomien antzeko hazkundeak espero da: barne produktu gordina % 2,1 inguru haziko da termino errealean, eta % 5,1 inguru termino korranteetan.

de tres puntos, los que van desde el 3,3% esperado por el banco BBVA hasta el 6,3% que anunció Laboral Kutxa. Esta amplitud se explica, en gran medida, por la fecha en que se realizó cada previsión, siendo más elevadas aquellas más alejadas en el tiempo. Si se dejan a un lado, por estar claramente alejadas del contexto actual, las que realizaron Confekask y labora kutxa en diciembre de 2021, destaca la mencionada previsión del BBVA, al tiempo que tanto Cereprede como Hispalink han estimado un ritmo de crecimiento de la economía vasca que no difiere de la previsión de la Dirección de Economía.

3.4.- DIPUTACIÓN DE GIPUZKOA

Por lo que se refiere a la economía guipuzcoana, en 2023 se estima un crecimiento similar al entorno, con incrementos del PIB alrededor del 2,1% en términos reales y del 5,1% medido en términos corrientes.